

AITZINA

Editorea: Fermin Munarriz. Koordinatzailea: Mariasun Monzón. Aholkularia: Iñaki Egaña. Diseñatzailea: Juan Luis Napal. Helbidea: Rincón de la Aduana, 18 behe. 31001 Iruñea. Tfnoa. 948-21 99 99. Faxa: 948-212329 E-mail: aitzina@haika.net

NORANTZA

JOXE RAMON ZUBIMENDI

«Udal Agiriak» liburuaren egilea

«Euskarak bere estilo propioa landu behar du Administrazioan»

Administrazioa euskalduntzeko eskaera nahikoa ez zela eta horretarako tresnak behar zirela konturatu zenean hasi zen Joxe Ramon Zubimendi bere bilduma, eta egun 80 udal agiri biltzen dituen liburua kalean dago.

hana zain dira beharrezkoak? Bada, gehien erabiltzen direnak. Azkenean, zerrenda bat egingoak, herritarrek gehien eskuratzen dituzten udal agiriak eman nien lehentasuna, udal langileei lagungarri zaizkien agiri eta paperei, eta, azkenik, maiz erabiltzen diren gainerako agiriak.

hasia argitzeko urratsak azaldu zizkienean, lankidetzara eskaini eta laguntza eskatu nirenean, berehalaxe baieztatu eban zidaten bai Udalari Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) bai Eusko Jaurlaritzako Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (HAEE/IVAP). Gainera, HAEE/IVAP erakundeak lana ordaindu eta argitaratu egin dit.

BEGONA SIMON

hauek?

Egia da udal agiri ugariak direla eta oraingo ezin direla denak landu. Lana honetan hasi nintzenean, neure buruari esan nion beharrezkoak landu behar nituelan.

Udal agiri horietan euskara argi eta garbi, zuzen eta egoki, erabili duen zubieta honen ueste du euskarak. Administrazioaren hizkuntzara moldatzen denean, ez duela gazteleraren edo frantsesaren akatsik errepikatu behar, bere estiloa landu bazik.

Zein helbururekin argitaratu da «Udal Agiriak» liburua?

Euskarari dagokionez, etorkizuna irabaztea du helburu orokorra, eta kasu honetan hori beste hiru helburu zehatz eta praktikoki lotua dago. Alde batetik, lan honen erraztu nahi du euskararen teknika eta funtzionario euskaldunen lana, herria hobeto zerbitzatu nahi du, argi eta garbi idatzitako udal-agiriaren bidez, eta Administrazioan euskara egokia landu. Badakit zaila izaten dela zer den euskararen egokia esatea, baina nik esango nuke egokia agiri bakoitzean izatea eta edukia argi eta garbi azaltzen duen euskararen dela, euskararen zuzen idatzitakoa eta lekuan lekuko hizkera bizia ere badarabilena.

Laurogei udal agiriaren bilduma egin duzu, baina askoz gehiago egongo dira, zein irizpidez aukeratu dituzu agiri

lan hau egingo zein laguntza jaso duzu?

Lan hau oraindik egitasmo besterik ez zenean eta egungo egoerara n...

Liburuan informatikaren bidez zabaltzeko asmoak dago?

Bai, liburuaren edukia nagusia, hots, agiriaren ereduak, informatikaren bidez ere zabalduko da. Hala, udal langile guztiak lanerako kopiak erabili ahal izango dituzte. Interneten bidez (<http://www.ivap.org>) eskuratu ahal izango da bilduma hau, eta, argibideak eta xehetasunak jasotzeko, HAEE/IVAekin harremanetan jarri behar da.

Liburuan proposatutako testuak itxiak dira edo aldagarriak dira?

Testu horiek ez dira moldatu gabe erabiltzeko sortuak izan, herri guztiak elkarren berdinak ez direla kontuan izanda. Zilegi eta komeni da agiri eredu hauek herrian herriko behar izanetara egokitzea, baina beti euskararen baturaren kalterako ez bada eta aldatzeko bakoitza onerako bada, noski. Baldintza hauek betetzeko, Euskaltzaindia hartu dut epaile, eta Jargo sailaren oniritzia beharko du testuak aldatzeko haimena eskuratu nahi duenak.



Karlos Costilla

Zirtoka



Txillardegí

Mirariari bai

Ez dugu egiten. Baina erraza litzateke. Pittin bat atzera begiratu, eta argitasunak blaturko gintuzke.

Gure herri hau hartaman altxa da, eta odola ausarki eman. Behin eta berriz. Oso bereziki agian gure berraiatzen garaian. Hegoaldetar foruzale guztiok, nola-hala bateraturik, espainiar harmada ofizialari gogor egin genion 1870ko hamarkada latzean. Erraza da Andetxaga birakartara, Lizarraga nafartara edo Santakruz gipuzkoarra berrito «aditza», edo somatzea behintzat. Erraza era berean Karlos Tetimoren menturak orpoz orpoz jarraitzea, eta Aparisi Gujarror estrategia nagusiaren ideak hausnartzea.

Ezin errazagoa, era berean, Margarita erreginarean heriotzaren ondoren, Berthe de Rohan aritzen kaxkarina Don Carlos-en jabe bihurturik aurkitzea, eta ostek aztoraturik topatzea. Pittin bat irakurtzea aski. Eta galderra bat datorrigu: nola liteke euskaldun foruzaleek beren esperantza politikoa ideologia zentzugabe hartan, eta Gorteko gidari zegoen jendalla haren eskutan jarri izana? Denborak ematen digun distantziatik, nabarmen indutzen zaigu euskal buruzagi politikoa zine izatuta bizi zirela, eta alferrik desbideratu zutela herriagandik zetorren indar harriagari hura.

Bego hori, dena dela. Eta bihur gaituzten gu geurera. XXI. mendean gortek ez du berdin ikusiko azken urte hauetan gure buruzagi batzuek, eta ez apalenek, Euskal Herriaren soluzio-bidea Ajouria-Eneaz izeneko itun zentzugabean ikusi izana eta hau helburu eta erlijio bihurturik, ezinbesteko abiapuntu egin izana?

Bapatean behinola Andetxaga, Lizarraga, Aparisi... geure artean topatzen ditugu, bizi-bizirik!! Eta hortxe mirana: Lizarra-Garazi. Nola ez bihotzaren erditik esango: aberki-deok, Eutsi!

AITZINDARIAK

ALLANDE OIHENART
1 5 9 2 + 1 6 6 7



NAFARROA LIBROKO PARLAMENTARI, ZUBEROAKO ZIN-BIDETAKO ZINDIK GISEAN POPULU XHEHA BEGIRATU DIZU OIHENART SEME ETA APEZGANDIK; DONAPALEUKO SENEKALIA ABATZEA LORTU DU ERREGEREN MANUZ...

PARTICULIEREMENT LES PAUVRES GENS QUI NE SAVENT QUE LEUR LANGUE BASQUE, SOUFFRENT DE GRANDS FRAIS ET INCOMMODITE ETANT OBLIGES ALLER A PAU ET SE FAIRE ASSISTER D'INTERPRETES POUR INSTRUIRE LEURS ADVOCATS ET PROCUREURS ET POUR SUIVRE LEURS CAUSES CONTRE LES NOBLES ET AUTRES PERSONNES PRIVILEGIEES...

ZINBIDETA = BILTZAR SENEKALIA = EPAITEGIA

HIEBEN USKAZ

«OIHENARTEN GAZTAROA NEURTHITZETAN» OLERKI LIBURUA HONDU DU MAULEKO SEME HONEK.

HAREN IZENA JOANA ES OIARI BEL DU DENA NOLA LIZATE JOANA?

ATSOTITZAK ERE, EHUNDAKA DAUZKA BILDURIK...

«DECLARATION HISTORIQUE DE L'INJUSTE USURPATION ET RETENTION DE LA NAVARRA PAR LES ESPAGNOLS» FRANTSESEZ ETA LATINEZ.

Balio lüke arrageritzea

zeren hiridori zate!

«NOTITIA UTRIUSQUE VASCONIAE, TUM IBERICAE TUM AQUITANICAE» LATINEZ, ORDUKO INGELESEZ, EUSKAL HERRIAREN BERRI EMAN DIO MUNDUARI...

• Nafarroa okupatutik ez diote bajmenik eman ituneko atxiboak atara litzar:

LA VOLUNTAD DE SU MAJESTAD NO ES QUE SE LE MUESTREN NADA EN LOS PAPELES "QUE PIDE EL DICHO OYANARTE. SE PROCEDE CON ESTA ATENCION CON LOS ESTRANGEROS, Y MAYORMENTE CON ERANCOSES, Y EN PARTICULAR, CON QUIEN TIENE ESCRITO LIBRO «DE LA YNJUSTA USURPACION Y RETENCION DE NAVARRA POR LOS ESPAÑOLS» E O ILLIBROA Kontu Kanbra 1 6 4 8

BERTAKO ADISKIDEK DIOTE LAN HURA BURUTUKEO.